

TOLOSALDEA / Eskualdean Liburuaren Eguna ospatuko dute

Astlehenean izango dira ekitaldi gehienak, baina Anoetan, egun askotako ekintzak antolatu dituzte

Tolosa. Astlehenean ospatuko da Liburuaren Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, eskualdean hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Tolosan, esaterako, astlehenean, Errotako haur liburutegiko bazkideek maileguan hartzen duten liburu bat bakoitzeko piruleta bana jasoko dute. Alegian, 17.30ean, ipuin kontaketa egingo dute udal liburutegian, Lur Kortaren eskutik. Lau eta zazpi urte bitarteko hurrei zuzendua izango da. Anoetan Irakurketaz gozatzen gurasoentzat tailerra antolatu dute, Yolanda Arrieta idazle eta literatura animatzailearen eskutik. Irakurgaiak aztertzeaz gain, ipuinak nola kontatu eta irakurri landuko dute, era praktikoan eta gurasoen partaidetza zuzena bilatuz. Saiotetan landutako testuak etxeko hurrekin nola funtzionatzen duten aztertuko dute, adin eta egoera desberdinak kontuan hartuz. Udal liburutegian izango da maiatzaren 14, 21 eta 31ean. Izena emateko apirilaren 27a baino lehen gerturatu beharko da udaletxera.

Honez gain, Andersen idazlearen hamar ipuinek osatzen duten bost panelen erakusketa ere antolatu dute kiroldegian. Maiatzaren 2tik 9ra izango da ikusgai. >m.s.s.